



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko martxoaren 6a

35. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—11-24/CCO-00004. “Eguesibarko Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**11-24/CCO-00004. “Eguesibarko Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin**

2024ko otsailaren 5ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Eguesibarko Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Adieraztea Eguesibarko Udalaren 2022ko langileriari, kontratazio publikoari eta dirulaguntzei buruzko fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinarren gainean dagoela.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**AURKIBIDEA****ORRIALDEA**

I. SARRERA .....	4
II. HELBURUA ETA NORAINOKOA .....	4
III. IRITZIA.....	5
IV. IRITZIAREN OINARRIA .....	5
V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK .....	5
VI. EGUESIBARKO UDALAREN ERANTZUKIZUNA .....	5
VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	6
VIII. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK .....	6
1. GEHIGARRIA. EGUESIBARKO UDALA.....	7
1.1 Informazio orokorra .....	7
1.2 Egindako jarduerak .....	8
2. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA.....	9
3. GEHIGARRIA. BETETZEAREN FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK .....	9
3.1 Langileak.....	9
3.2 Kontratazio publikoa.....	13
3.3. Transferentzia arruntetako eta kapital-transferentzietako gastuak.....	15
3.4 Next Generation funtsak.....	17

## I. SARRERA

Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2023ko bere jarduketa-programari jarraikiz, legeriaren betetzeari buruzko fiskalizazioa egin du Eguesibarko Udalari buruz, langileriaren, kontratazio publikoaren eta dirulaguntzen arloetan.

Landa-lana 2023ko urrian eta azaroan egin zuen auditoria-teknikariz eta auditore batez osatutako lantalde batek, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Eguesibarko Udaleko langileei lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

Jarduketa horren emaitzak Eguesibarko Udaleko alkateari jakinarazi zitzaizkion, hala nahi izanez gero egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz. Ezarritako epea igarota, ez da alegaziorik aurkeztu.

Txosten honetako datu ekonomiko guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Emandako datuek eta ehunekoek beti adierazten dute balio zehatz bakoitzaren biribiltzea, eta ez datu biribilduen batura.

## II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Gure lanaren helburua da iritzia ematea ea honako gai hauei dagokienez Eguesibarko Udalak 2022ko ekitaldian zehar egindako jarduerak bat datozen, alderdi esanguratsu guztietan, aplikatzen den arau-esparruarekin:

- Langileria: alderdi orokorrak, nominetako ordainsariak aztertzea eta enplegu publikoa egonkortzeko prozesua berrikustea.
- Kontratazio publikoa: munta txikiko araubideko kontratazioa eta kontratuzko euskarri egokirik gabeko prestazioak.
- Zuzeneko emakidaren araubidezko dirulaguntzak.
- Udal taldeentzako diru-zuzkidurak.

Era berean, Udalak emandako datuen arabera, zenbatu egin ditugu Next Generation Funtsetatik jasotako dirulaguntzak eta horiei lotutako gastuak.

Fiskalizazioaren norainokoak barne hartzen ditu txosten honen 3. gehigarrian aipatzen diren laginetan berrikusitako eragiketak.

Horrez gain, eta fiskalizazioaren testuinguruan, aztertu da 2019ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostenean adierazitako gomendioak zein neurritan bete diren txosten honen azter-eremuan dauden gaietan.

Gure lanaren norainokoak ez du barne hartzen udalaren menpeko sozietatea.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2022ko ekitaldia da, baina beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztapenak ere egin dira, beharrezkoak izan direnean ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

### **III. IRITZIA**

Nafarroako Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion esku-menak erabiliz, legezketasun-fiskalizazio bat egin du Eguesibarko Udalaren 2022ko ekitaldiko langileriari, administrazio-kontratazioari eta dirulaguntzei buruz.

Gure ustez, eta gure lanaren norainokoa aintzat hartuta, langileriaren, kontratazioaren eta dirulaguntzen arloan Eguesibarko Udalaren 2022ko ekitaldiari buruz aztertutako jarduerak bat datoz, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

### **IV. IRITZIAREN OINARRIA**

Fiskalizazioa egin dugu kanpo-kontroleko erakunde publikoen funtsezko fiskalizazio-printzipioei jarraituz eta, zehazkiago, legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioen gaineko ISSAI-ES 400 arauari jarraituz, bai eta kanpo-kontroleko organoen fiskalizazio gida praktikoei (GPF-OCEX) jarraituz ere. Arau horien indarrez dugun erantzukizuna aurrerago deskribatzen da, txosteneko "Kontuen Ganberaren erantzukizunak" atalean hain zuzen ere.

Legeria betetzeari buruzko gure fiskalizazioari aplikatzekoak zaizkion etika-eskakizunekin eta independentzia defendatzearen eskakizunekin bat, entitatearekiko independenteak gara, fiskalizazio publikoaren jarduerari buruzko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria ematen du legeriaren betetzeari buruzko gure iritzia, aldatugabea edo aldekoa, emateko.

### **V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK**

Auditoretzako gai giltzarriak dira gure iritzi profesionalaren arabera munta handiena izan dutenak aztertutako aldiko legeriaren betetzeaz egin dugun fiskalizazioan. Auzi horiek jorratu ditugu betetzeari buruz egin dugun fiskalizazioaren testuinguruan, eta ez dugu horiei buruzko iritzi bereizirik adierazten.

Erabaki dugu gure fiskalizazioan ez dagoela jakinarazi beharreko gai giltzarriak.

### **VI. EGUESIBARKO UDALAREN ERANTZUKIZUNA**

Eguesibarko Udaleko Idazkaritzak eta Kontu-hartzaitzak bermatu behar dute fiskalizatutako arloetako jarduerak bat etortzea aplikatu beharreko araudiarekin.

Era berean, udalaren erantzukizuna da beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontroleko sistemak ezartzea, bermatuko dutenak egindako jardueran ez dagoela ezer legez kanpikorik.

## VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure helburuak honako hauek dira: zentzutasunezko ziurtasun bat lortzea udalak 2022ko ekitaldian gai fiskalizatueta egindako jardueretan muntazko ez-betetzirik ez egoteaz, eta legeria-betetzearen fiskalizazio-txosten bat egitea, gure iritzia jasotzen duena.

Zentzutasunezko ziurtasuna ziurtasun maila handia da, baina horrek ez du bermatzen fiskalizazio publikoaren jarduerari buruzko araudiari jarraikiz egindako fiskalizazio batek beti harrapatuko duenik muntazko ez-betetze bat, halakorik egonez gero. Ez-betetzeak iruzur edo akatsen ondorio izan daitezke, eta materializat jotzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta.

Kanpo kontroleko organoen fiskalizazio-jarduerari buruzko araudiari jarraituz eginiko fiskalizazio baten atal gisa, gure irizpide profesionala aplikatzen dugu, eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan zehar. Gainera:

- Iruzur edo akatsen ondoriozko ez-betetze muntazkoetarako arriskuak identifikatu eta baloratzeko, auditoretza-prozedurak diseinatu eta aplikatu ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta auditoretza-ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia oinarria emateko. Ez-betetze esanguratsu bat iruzurraren ondoriozkoa denean, hori ez detektatzearen arriskua handiagoa da errearen ondoriozkoa denean baino; izan ere, iruzurraren osagai izan daitezke kolusioa, faltsutzea, berariazko omisioak, apropos eginiko adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihestea.

- Fiskalizaziorako muntazkoa den barne-kontrolaren ezagutza lortzen dugu inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak taxutze aldera, eta ez entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzirik emate aldera.

- Ebaluatzen dugu ea prozedurak egokiak diren, bai eta kudeaketa-organismoak emandako informazioaren zentzutasuna ere.

Erakundearen gobernu-organismoarekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, jorratze aldera planifikatutako auditoretza-proben norainokoa eta horiek egiteko unea, auditoretzaren aurkikuntza esanguratsuak eta barne-kontrolari dagokionez fiskalizazioan zehar identifikatzen dugun edozein oker adierazgarri. Entitatearen gobernu-organismoari jakinarazi zaizkion gorabeheren artean, zehazten dugu zein izan diren betetzearen fiskalizazioan munta handienekoak eta, horrenbestez, auditoretzako gai giltzarriak.

## VIII. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK

Langilerari, kontratazio publikoari, dirulaguntzei eta iraganeko txostenetako gaiei buruz eginiko betetze-fiskalizazioko lanaren emaitza bezala, Ganbera honek gomendatzen du:

- *Langileen arloko barne-kontrola indartzea, nominetan antzemandako akatsak gerta ez daitezten.*

- *Dirulaguntza-plan estrategiko bat onestea, eta bertan zehaztea helburuak, efektuak, aurreikusitako kostuak eta finantzaketa-iturriak.*

- *Erregelamenduz garatzea udal-taldearen finantzaketa justifikatzeari buruzko araubidea, erregulaturik bai haien diru-zuzkiduren erabilera, bai formazko betekizunak eta prozedura, halako moldez non diru-zuzkidurez eginiko erabilera kontu-hartzaitzaren fiskalizaziopean jarriko baita eta gutxienik urtean behin osoko bilkurari jakinaraziko baitaio.*

Beste gomendio gehigarri batzuk jaso ditugu 3. gehigarrian, zeinean biltzen baitira fiskalizazioaren beste ohar eta aurkikuntza batzuk.

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Begoña Herrera Isasik proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 25ean

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador


## 1. GEHIGARRIA. EGUESIBARKO UDALA

### 1.1 INFORMAZIO OROKORRA

Eguesibar udal konposatu bat da, Iruñerrian dagoena. 54 km<sup>2</sup>-ko azalera du, eta 21.795 biztanle zeuzkan 2022ko urtarrilaren 1ean. Udalerria honako hauek osatzen dute: Altzuza, Ardanatz, Azpa, Badoztain, Egues, Elkano, Elia, Ibiriku, Olatz eta Sagaseta kontzejuek eta Etxalatz, Egulbati, Eran-tsus, Gorraitz, Sarriguren eta Ustarrozko populazio-entitate bereziek.

Udal antolamendua besteak beste organo hauek osatzen dute: Osoko Bilkurak, Tokiko Gobernu Batzarrak eta Alkatetzak.

Hauxe da Udalaren eta haren menpeko erakundeen osiera:



Udalak ez dauka erakunde autonomorik.

Udala Andacelay SL udal-sozietatearen bazkide bakarra da. 2004an eratu zenean, helburu soziala hirigintzaren esparrura mugatzen zen. Alabaina, 2016an udalak erabaki zuen helburu soziala zabalagotzea, ordura arte kanporatuta zeuden kudeaketa-jarduerak erantsiz. Urte horretan bertan, osoko bilkurak "entitate instrumental" gisa deklaratu zuen Andacelay SLU sozietatea, eta egun hiru udal-enkargu dauzka, honako zerbitzuak kudeatzekoak:

- Udal-eraikinen garbiketa.
- Haur-eskolen kudeaketa.
- Familientzako arreta-zentroaren kudeaketa.

Kontu-hartzaitzak 2022ko ekitaldiari buruz eginiko urteko kontuen txostenaren arabera, honakoak dira diru- eta langileria-datu nagusiak ekitaldi-amaieran:

- Udala

Entitatea	Eskubide aitortuak	Betebehar aitortuak	Langileak, 2022-12-31n
Udala	17.168.397	14.992.471	167

- Sozietate publikoa

Sozietate publi- koa	Ekitaldiko emaitza	Fakturazioa Udal-enkarguak	Epe luzeko zorpetzea	Ondare garbia	Negozio-kopuru garbia	Plantilla batez beste- koa (2022)
Andacelay, S.L.	(359)	1.986.132	0	2.317.233	1.993.080	63

Udala, halaber, Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago, eta hark ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri-garraiokoa eta ibai-parkearen kudeaketakoak. Haren alde aitortutako gastua 428.849 eurokoa izan da 2022an.

## 1.2 EGINDAKO JARDUERAK

Udalak emandako informazioaren arabera, udalak ematen dituen zerbitzu publikoak eta horiek emateko modua honako hauek dira:

Zerbitzua	Zuzeneko kudeaketa		Zeharkako kudea- keta	
	Udala	Enpresa publikoa	Zerbitzu-kontratua	Mankomunitatea
Argiteria publikoa	X			
Hilerria	X			
Hiri-hondakinak bildu eta tratatzea				X
Bide-garriketa	X			
Udal eraikinen garriketa		X		
Uraren ziklo integrala				X
Estolderia	X			
Parke publikoa	X			
Liburutegia	X			
Gizarte zerbitzuak	X	X		
Kirol instalazioak			X	
Bidaia-erentzako hiri barruko garraio kolektiboa				X
Hirigintza	X			
Udaltzaingoa	X			
Kulturaren sustapena eta kultur ekipamenduak	X			
Ikastetxe publikoak mantentzea	X			
Berdintasunaren sustapena	X			
Turismo-jardueraren sustapena	X			
0-3 urtekoen ikastetxea		X		



## 2. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Udalari aplikatzekoa zaion arau-esparru nagusia honako hau da:

### Estatuko araudia

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoa.

### Foru araudia eta tokikoa

- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena, bai eta hura garatzeko xedapenak ere.
- Aurrekontua betearazteko oinarriak.
- Ordenantzak.

## 3. GEHIGARRIA. BETETZEAREN FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK

Egindako fiskalizazioaren parte gisa, jarraian ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri bat ere.

Orobat gehitu ditugu Ganbera honen ustez Udalaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

### 3.1 LANGILEAK

Langile-gastuak 6,8 milioioak izan ziren, eta ekitaldian sortutako gastu guztien % 46 egin zuten. Honako taulan ematen da gastu horren xehakapena:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2022)
Hautetsien lansariak	124.023
Behin-behineko langileen ordainsariak	56.058
Funtzionarioen ordainsariak	3.926.322
Lan-kontratudun finkoen ordainsariak	201.639
Aldi baterako lan-kontratudunen lansariak	404.770
Gizarte-kuotak	2.028.627
Langile-gastu sozialak	63.748
Familia-osagarria	38.677
<b>Guztira</b>	<b>6.843.864</b>

## Plantilla organikoa

Udalaren 2022rako plantilla organikoa ez zen onetsi. Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO, aurrerantzean) argitaratutako azken plantilla (2021eko azaroaren 2an argitaratua) 2020koa da. Gero, 2022ko abenduaren 5eko NAO-n, postu-kopurua aldatzen ez duen plantilla-aldaketa bat argitaratu zen.

Plantillaren araberako lanpostuak, adierazitako azken aldaketarekin, honako hauek dira:

Sailkapena	2022
Lan-kontratudunak	69
Funtzionarioak	56
Behin-behineko langileak	1
<b>Guztira</b>	<b>126</b>

Plantillako lanpostuetatik, ehuneko 55 lan-araubidekoak dira, eta ehuneko 44, funtzionario-araubidekoak.

Honako hau zen lanpostuen egoera 2022ko abenduaren 31n:

	2022
Plantillako lanpostuak	126
Beteta	55
Hutsik	71
<b>Lanpostu hutsen % lanpostu guztien gainean</b>	<b>56</b>
Bete diren lanpostu hutsak	60
<b>Bete diren lanpostu hutsak (%)</b>	<b>85</b>
Bete gabeko lanpostu hutsak	11
<b>Bete gabeko lanpostu hutsak (%)</b>	<b>15</b>

2022an, plantillako lanpostu guztien ehuneko 56 hutsik zeuden; horietatik, ehuneko 85 aldi baterako zeuden beteta, eta gainerakoak, ehuneko 15, artean bete gabe.

2022ko abenduaren 31n, behin-behinekotasunaren indizea, betetako plaza hutsen eta modu finkoan edo aldi baterako betetako plantilla-plaza guztien arteko zatidura gisa kalkulaturik, ehuneko 52koa zen.

*Gomendatzen dugu urtero onestea udalean diharduen langileriaren plantilla organikoa.*

## Enplegu publikoaren egonkortze prozesuaren azterketa

Enplegu publikoa egonkortzeko prozesua aztertu dugu, aintzat harturik Enplegu publikoan aldi-baterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean jasotzen diren betekizun eta epeak. Udalak erabaki zuen ez atxikitzea uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legeak, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira 20/2021 Legearen ondoriozko egonkortze prozesuak gauzatzeko, II. tituluan jasotzen duen araubideari.

Aurreko azterketatik, honako gai hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Udalak 55 lanpostu egonkortzeko lan-eskaintza publikoa (aurrerantzean LEP) onetsi zuen, 2022ko maiatzaren 17ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (aurrerantzean NAO) argitaratua, legea beterik, zeinak 2022ko ekainaren 1a ezartzen baitzuen epemugatzat.

- Azkenik 53 postu onetsi dira, lan-arloko epaitegiek aurreko LPEan sartuta zeuden bi postu finkoak zirela jo baitzuten. Nolanahi ere, kontuan harturik lehenagoko errekurtoetako baten gainean epaia eman dela 2023ko azaroan, fiskalizazio-lanak barne hartu ditu 2022an izapidetu ziren 54 postuak.

- Aurreko 54 postu horietatik, 47 sartuta daude merezimendu-lehiaketako hautaketa-sisteman, eta zazpi, lehiaketa-oposizioko sisteman.

- Lagin batean egiaztatu dugu ezen sartuta dauden lanpostuek bete egiten dituztela araudian ezarritako baldintzak.

- Lanpostu horiek betetzeko, bi deialdi onetsi ziren: bata, merezimendu-lehiaketakoa, eta bestea, oposizio-lehiaketakoa. Biak 2022ko azaroaren 28an argitaratu ziren, legearekin bat etorrira, zeinak 2022ko abenduaren 31 ezartzen baitzuen epemugatzat.

- Prozesu horretan zehar, bost administrazio-errekurto aurkeztu dira: gora jotzeko lau errekurto Nafarroako Administrazio Auzitegian (hiru, merezimendu-lehiaketarako deialdiari buruzkoak, eta beste bat, oposizio-lehiaketari buruzkoa), zeinak ezetsiak izan baitziren, eta gora jotzeko errekurto bat, merezimendu-lehiaketaren deialdiari buruzkoa, zeina ez baitzen onartu.

Txosten hau idaztean, merezimendu-lehiaketa bidez bete da deituriko postuetako bat. Hautapen-prozesu horiek 2024ko abenduaren 31 baino lehen ebatzi beharko dira, data horretarako bete behar baita legez aurreikusitako helburua; hots, aldi baterako kontratuak egiturazko lanpostuen ehuneko 8ra murriztea.

### Langile-gastuaren egiaztapenak

2022ko urrian 140 pertsonari ordaindutako nominako 17 ordain-kontzepturen lagin bat aztertu dugu. Zenbatekoa 258.377 euro da. Azterturiko ordainsariek hilabete horretako ordainsarien ehuneko 75 egiten dute. Horien xehakapena eta zenbatekoa honako hau da:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Oinarrizko soldata	167.179
Lanpostuko osagarria	28.085
Gradua	24.246
Mailako osagarria	13.402
Berariazko osagarria polizia lanpostua	6.453
Antzinasuna	5.867
Arrisku-osagarria	3.744
Bateraezintasun-osagarria	2.712
Lanaldiaren luzapeneko osagarria	2.381
Esklusibotasun-osagarria	2.219
Zuzendaritza-postuko osagarria	1.602
Txandakako lanaldiaren osagarria	488
<b>Guztira</b>	<b>258.377</b>

Nomina-kudeaketa kanporatuta dago, lan-aholkularitza baten ardurapean.

Aurreko azterketan egiaztatu dugu ordainsari-kontzeptu horiek bat datozela plantilla organikoaren arabera betetzen dituzten lanpostuetarako aurreikusitakoekin, alde batera utzirik Udalak ja-danik 2023ko apirilean antzeman eta zuzendutako okerrak. Alkatetzako dekretuen bidez hiru per-sonari eskatu zitzaizen haiei oker ordaindutako kopuru batzuk, 5.268 euro egiten zituztenak, itzul zitatzela.

## **Ikasteko laguntzak**

Eguesibarko langileentzako, haien ezkontide edo bikotekide egonkorrentzako eta haien seme-alabentzako ikasketa-laguntzak arautzen dira entitate horren akordio kolektiboan, zeina 2015eko otsailaren 2ko NAO-n argitaratu baitzen. Urtero 12.000 euroko funts bat zuzkitzen da, KPIren arabera eguneratua. Abenduko nominan egiten da ordainketa.

Batzorde paritarioa akordio kolektiboa aplikatu, aztertu eta zaintzeko organo gisa eratu da, eta horren kide dira ordezkari sindikalak eta Udalak egokitzat jotzen dituen beste kide batzuk. Batzorde horren eginkizunak dira, besteak beste, aipatu akordioaren artikulua bakoitza interpretatu, aztertu eta garatzea.

Batzordeak irizpideak ezarri zituen laguntza horiei buruzko araudian argi ez zeuden zenbait zertzeladari buruz, zaila gertatzen baitzen jasotako eskaerak aztertzea. Geroztik ez da, baina, akordio kolektiboan aldaketarik egin. 2015eko azaroaren 13an erabaki zuen dirulaguntzak ematea zentro itunduetan ordaintzen diren "ikastetxe-kuotetarako, funtzionamendu-gastuetarako, elkarte-kuotetarako eta sarrera-kuotetarako".

Berrikusi egin ditugu 2022ko abenduan 24 enplegaturentzat ordaindutako ikasketa-laguntzak, zeinek 12.251 euro egiten baitzituzten. Horietatik, ehuneko 90 dira enplegatuaren familia-unitatearen kideen ikasketetarako laguntzak.

Aurreko analisiaren bidez ikusi dugu Udalak irizpide ezarrien arabera ordaindu zituela laguntzak, honako kasuetan izan ezik:

- Ezezkoa eman zaie bost pertsonaren eskaerei, horien xede ziren kontzeptuak laguntzen esparruaren barrenekoak ziren arren.
- Bi pertsonak jasotako laguntzak handiagoak dira batzorde paritarioak onuradun bakoitzeko ezarritako gehieneko kopurua baino. Gaur egun, ezaguna da Udala izapide egokiak egiten ari dela egoera erregularizatzeko.
- Bi pertsonak laguntzak jaso dituzte frogatu gabe haien ezkontidea ez dela antzeko laguntzen hartzaile.

Egindako azterlana kontuan hartuta, hauxe gomendatzen dugu:

- *Laguntza-emate horietan aurkitu diren akatsak erregularizatzea.*
- *Akordio kolektiboan jasotzea laguntza horiek, behar adina argitasun eta gardentasunez emateko irizpide guztiak.*

## **Nominaren barne-kontrolari buruz aurreko txostenetan adierazitako gomendioen segimendua**

Fiskalizatutako ekitaldian zehar neurriak hartu dira 2019ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostenetan jasotako gomendio hau betetzeko:

- *Jardunbide egokiak ezartzea udaltzaingoko lanaldiaren kontrol eta jarraipenerako.*

Gai honetan, Udalak lanaldi-kontrola ezarri du, baina ez daude behar bezala dokumentatuta nominan ordaindutakoaren eta lanaldi-kontrolaren arteko aldeak.

Eginiko lana aintzat harturik, bai eta txosten honetako "Gomendio garrantzitsuenak" atalean jasotako aholkuak ere, honako hau gomendatzen dugu:

- *Jaiegun- eta gauekotasun-ordainketak fitxaketaren arabera behar du izan, eta suerta daitezkeen aldeak burutzaren txostenen bitartez justifikatuta egonen dira.*

### 3.2 KONTRATAZIO PUBLIKOA

2022ko ekitaldiko ondasun eta zerbitzuengatiko gastu arruntak 4,6 milioikoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 31 egiten dute.

Honako xehakapenak 2022ko gastuaren berri ematen du:

Artikulu ekonomikoa	Aitortutako betebeharrak Garbiak, 2022
Errentamenduak eta kanonak	26.982
Konponketak, mantentze-lana eta kontserbazioa	408.690
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	2.142.011
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	85.816
Administrazio publikoek eta beste entitate batzuek eginiko lanak	1.982.022
<b>Guztira</b>	<b>4.645.519</b>

2022an, inbertsioek guztira 2,1 milioi egin zuten, eta zenbateko horrek gastuen zenbateko osoaren ehuneko 14 egiten du.

Honako xehakapenak 2022ko gastuaren berri ematen du:

Artikulua	Aitortutako betebeharrak Garbiak (2022)
Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunetako inbertsio berriak	189.869
Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunen lehengoratzeko inbertsioak	182.666
Zerbitzuen funtzionamendu operatiboari lotutako inbertsio berria	1.053.060
Zerbitzuen funtzionamendu operatiboari lotutako lehengoratzeko inbertsioak	657.548
<b>Guztira</b>	<b>2.083.143</b>

Gure lana zenbateko txikiko araubideko kontratazioa eta kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak aztertzea izan da, bi gastu-kapituluetan. Fiskalizazio-lagina hautatzeko, lehenik eta behin lortu ditugu guztizko kontratista-kopurua eta haien gastua, 2. eta 6. gastu-kapituluetarako. Honako informazio hau lortu dugu:

Kapitulua	Kontratista-kop.		Aitortutako betebeharrak (BEZa barne), 2022	
2. Ondasun eta zerbitzu- etan egindako gastu arruntak	Lizitazio-prozedura- rekin	Munta txikiko kontratueterako arabide berezia	Lizitazio-prozedura- rekin	Munta txikiko kon- tratueterako arau- bide berezia
	24	585 <sup>1</sup>	858.524	3.786.995
6. Inbertsioetako gastuak	11	65	1.697.085	386.058

Munta txikiko kontratueterako araubide bereziaren bidez kontratatu diren kontratista guztietatik, honako lagin hau hautatu dugu:

Kapitulua	Kontratista-kop.	Aitortutako betebeharrak (BEZa barne), 2022
2. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	28	2.920.082
6. Inbertsioetako gastuak	4	97.069

<sup>1</sup> Kontratisten ehuneko 83k 3.750 euro +BEZa baino gutxiagoko gastua dute.

Hautatutako laginek 2. eta 6. kapituluetakoko gastuen ehuneko 77 eta 25 egiten dute, hurrenez hurren, zenbateko txikiko kontratuen araubide bereziaren bidez izapidetuak. Geure berrikuspenean oinarrituz, honako hauek ondorioztatu ditugu:

### Munta txikiko kontratazioa

- 2. kapitulua: ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak:

Egiaztatu dugu munta txikiko kontratuetakoko araubide bereziaren bidez izapidetutako honako prestazio hauek daudela, guztira 20.795 euroko gastua jo zutenak 2022an, zeinen balio zenbatekiak gainditu egiten baititu Kontratuari buruzko Foru Legean araubide horretarako ezarritako mugak, honela:

Prestazioaren deskribapena	Faktura-kopurua	Aitortutako betebeharrak (2022) (BEZa barne)
Inprimatze-zerbitzua.	2	12.540
Posta-kontuak mantentzea	96	8.255
<b>Guztira</b>		<b>20.795</b>

2022ko ekainean inprimatze-zerbitzua esleitu zen. Aipatu gastua lizitazioaren aurreko aldikoa da.

Akats horiei buruz, Ganbera honek adierazi nahi du ezen kontu-hartzaitzak kontratazioaren segimendurako txosten bat jaulkitzen duela urtean behin, non aztertzen baititu kontratazio-espeditentea izapidetzerantz behartzen duten zenbatekoetara iritsi diren gastu errepikari lizitaziogabeak.

- 6. kapitulua, inbertsio-gastuena:

Kasu honetan, ikusi dugu aztertutako gastua egokiro izapidetua izan zela, eta ez zuela lizitazio-prozedura baten beharrik.

### Kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak

Udalak emandako informazioaren arabera, 2022an guztira 78.916 euro ordaindu ziren, zeinen kontratua mugaeguneratuta baitzegoen. hona xehetasunak:

Kontratuaren xedea	2022an ordaindutako gastua	Kontratuaren amaieratik 2022-12-31ra arte metatutako gastua	Kontratu-amaieraren data (luzapenak barne)
Bizi- eta istripu-asegurua	20.275	56.500	2020/06/30
Berdegunek mantentzea	58.641	58.641	2022/09/15
<b>Guztira</b>	<b>78.916</b>	<b>115.141</b>	

Kontratua amaituenez geroztik prestazio hauek esleituak ez izatearen arrazoia da prozedura hutsik geratu zela, ez behin baizik birritan.

### 3.3. TRANSFERENTZIA ARRUNTETAKO ETA KAPITAL-TRANSFERENTZIETAKO GASTUAK

Transferentzia-gastuak transferentzia arruntetakoak bakarrik dira. 2022an 1,2 milioikoak izan ziren; kopuru horrek gastu guztien ehuneko 8 egiten du, honela zehazturik:

Transferentzia arruntak	Zenbatekoa
F. Komunitateko Adm. Orokorra	22.655
Udalak	273
Mankomunitateak	428.849
Kontzejuak	60.424
Enpresa pribatuak	151.659
Familiak	73.643
Irabazi asmorik gabeko erakundeak	291.809
Beste transferentzia batzuk	198.908
<b>Guztira</b>	<b>1.228.220</b>

Honako alderdi hauek aztertu ditugu:

#### Dirulaguntzen plan estrategikoa

Udalak ez dauka Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrek exijitzen duen dirulaguntzen plan estrategikoa.

#### Dirulaguntza-lagin baten azterketa

Udalak emandako informazioaren arabera, 26 onuraduni 105.532 euro eman zizkien zuzeneko ematearen prozeduraren bidez, kontzejuei helarazitako jaietarako dirulaguntzez gain, zeinak analititik kanpo utzita baitaude. Hona xehetasunak:

Onuraduna	Behin betiko kreditua	Aitortutako Betebehar Garbia (2022)
Berrikuntzaren Hiriarentzako sostengua	30.000	29.314
Laguntza juridikorako lankidetzaren hitzarmena	12.000	12.000
Oteiza Museoarekiko lankidetzaren hitzarmena	10.000	10.000
Joaquín Lizarraga IParen jardueretarako dirulaguntza	10.000	9.545
Uriz Ahizpak IParen jardueretarako dirulaguntza	10.000	9.164
Uriz Ahizpak IPko guraso-elkartearen jardueretarako dirulaguntza	12.000	8.000
Joakin Lizarraga IPko guraso-elkartearen jardueretarako dirulaguntza	12.000	6.344
Eguesibarko Hiruki klubarekiko hitzarmena	5.400	5.400
Eguesibarko Abesbatza elkartearekiko hitzarmena	5.000	5.000
Malkaitzen Olentzerorako hitzarmena	3.000	2.936
Erripagainako bizilagun-elkartea	2.328	2.328
Gorraitz golf-klubarekiko hitzarmena	2.200	2.200
Lakarri klubarekiko hitzarmena, arku-tirorakoa	1.500	1.500
Haur Eskoletako guraso-elkartearentzako dirulaguntza	1.000	1.000
Eguesibarko erretirodunen elkartearekiko hitzarmena	4.800	800
Eguesibarko txirrindularitza-klubarekiko hitzarmena	2.800	-
<b>Guztira</b>	<b>124.028</b>	<b>105.532</b>

Honako lagin hau aztertu dugu:

Onuraduna	Zenbatekoa, 2022
Berrikuntzaren Hiriarentzako sostengua	29.314
Laguntza juridikorako lankidetzak-hitzarmena	12.000
Uriz Ahizpak IParen jardueretarako dirulaguntza	9.164
Uriz Ahizpak IPko guraso-elkartearen jardueretarako dirulaguntza	8.000
Gorraitz golf-klubarekiko hitzarmena	2.200
<b>Guztira</b>	<b>60.678</b>

Lagina aztertuz egiaztatu dugu ezen, orokorrean, gastuak baimenduta eta kontu-hartzaileak ikusita daudela, eta onetsi, justifikatu eta ordaindu zirela beraiei buruzko araudiak ezarritakoari jarraituz. Halere, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Azterturiko dirulaguntzak ez dira argitaratu Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean.
- Udalaren eta Gorraizko golf-klubaren arteko hitzarmenaren justifikazio-kontuak etekin bat erakusten du, eginiko jarduerarengatikoa; halere, guk eginiko fiskalizazioaren ondorioz, Udalak kasuko itzulketa-espeditzea izapidetu du.
- Udalaren eta abokatu-elkargoaren artean sinaturiko lankidetzak-hitzarmenaren helburua da udal gizarte-zerbitzuen alorreko aholkularitza juridikoaren funtzionamendua. Xedea aintzat hartuta, egokiago iruditzen zaigu zerbitzu-kontratuaren kalifikazio juridikoa ematea, Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearekin bat.

Egin dugun fiskalizazioaren emaitza gisa, txosten honetako "Gomendio garrantzitsuenak" atalean jasotako aholkuek gain, honako hau gomendatzen dugu:

- *Onetsitako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea.*
- *Aholkularitza juridikoko zerbitzua lizitatzea.*

### Udaleko talde politikoentzako diru-zuzkidurak

2022an, udal-taldeentzako diru-zuzkidurak 40.350 euro egin dute, jarraian xehatzen denez:

Udal-taldea	Zinegotzi ko- purua	Diru-kopurua 2022an, guz- tira
Navarra Suma	9	15.750
Geroa Bai Eguesibar	4	7.800
EH Bildu Eguesibar	3	6.000
PSN Eguesibar	3	6.000
Izquierda Ezkerra Eguesibar	1	2.400
Ahal Dugu Eguesibar	1	2.400
<b>Guztira</b>	<b>21</b>	<b>40.350</b>

Zuzkidura horiek aztertuta, honako alderdi hauek azpimarra ditzakegu:

- Osoko Bilkurak, 2019ko uztailaren 5ean, urteroko 2.300 euroko zuzkidura finkoa onetsi zuen lehenbiziko zinegotziarentzat, eta 1.800 eurokoa, bigarren zinegotzitik aurrera. Zenbateko horiek ez dira eguneratu.
- Udalak jakinarazten duenez, Osoko Bilkurak ez du inoiz eskatu kontabilitate-aurrezpenik, nahiz eta taldeak behartuta dauden kontabilitatea mantentzera, hala dioenez Toki-araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak (aurrerantzean, TAOL).
- Ez da agertzen udal-taldeentzako zuzkidura ekonomikoari buruzko informaziorik argitaratu denik Udalaren webguneko gardentasun-atarian.



Kontuan hartu behar da zuzkidura ekonomiko horiek xede-lotura daukatela, eta haien helburua dela taldeek udal-jardueran duten funtzionamendua hobetzea. Izaeraz funts publiko direnez, haien erabilera justifikatuta eta fiskalizatuta egon behar da. Ildo horretan, Toki-araubidearen Oinarriei buruzko Legeak udal-taldeak behartzen ditu berariazko kontabilitatea egitera eta hura Udalaren Osoko Bilkuraren eskura jartzera, udalbatzak eskatutakoan.

Egin dugun fiskalizazioaren emaitza gisa, txosten honetako "Gomendio garrantzitsuenak" atalean jasotako aholkuez gain, honako hau gomendatzen dugu:

- *Udal-taldeendako zuzkidura ekonomikoak Udalaren webguneko gardentasun-atarian argitaratzea.*

### **Udal-taldeentzako zuzkidura ekonomikoari buruz lehenagoko txostenetan adierazitako gomendioen segimendua**

Fiskalizatutako ekitaldian zehar neurriak hartu dira 2019ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostenean jasotako gomendio hauek betetzeko, zeinak gure txostenaren azter-eremuaren barrenekoak baitira:

- *Udal taldeei IFZ propioa frogatu dezaten eskatzea, dagokion banku-kontua izanen duena, berezia eta beren alderdi edo koalizio politikoarekiko loturarik gabea.*

### **3.4 NEXT GENERATION FUNTSAK**

Europar Batasunak erabaki zuen baliabideak helaraztea estatu kideei Next Generation funtsen bitartez, COVID-19aren pandemiaren eragina samurtu eta ekonomiaren suspertzeari bultzada emateko.

2021-2022 aldian, Udalak 984.679 euro jaso zituen, bi jarduketa finantzatzeko. Horietatik 110.805 euro gastatu ditu, jarraian zehazten den bezala:

	Aitortutako betebeharrak, 2021	Aitortutako betebeharrak, 2022	Guztira 2022/12/31
Modernizazio digitala	-	26.571	26.571
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak	-	84.235	84.235
Bidegorria	-	110.805	110.805

	Aitorturiko eskubideak, 2021	Aitorturiko eskubideak, 2022	Guztira 2022/12/31
Modernizazio digitala	-	20.869	20.869
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak	-	963.810	963.810
Bidegorria	-	984.679	984.679

Funtsen denboratasuna 2026ra bitartekoa da. Urte horretan proiektuek amaituta egon beharko dute. Bidegorriari buruzko proiektuan, Udalak, laguntzaren ematearekin, 963.810 euro egiten duten diru-sarrerak aitortu ditu. 2022ko abenduaren 31n, oraindik gauzakizun zegoen 313.238 euro jasotzea.

Funtsen eta finantzatzen dituzten gastuen kontabilitate-segimendua gastu-proiektuen bidez egiten da, eta suertatzen diren finantzatze-desbideraketak behar bezala egotzita daude aurrekontu-emaitzara eta diruzaintza-gerakinera.





